BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4681

AGINDUA, 2015eko urriaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015. urteko Euskadi literatura saridunen eta haien lanen berri ematen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko apirilaren 1eko Aginduaren bidez (2015eko apirilaren 8ko EHAA, 64. zk.), Euskadi literatura sariak arautu eta horietarako deialdia egiten da, haien zazpi modalitateetan: euskarazko literatura, gaztelaniazko literatura, euskarazko haur eta gazte literatura, euskarazko literatura itzulpena, literatura lanaren ilustrazioa, euskarazko saiakera eta gaztelaniazko saiakera.

2015eko apirilaren 1eko Aginduaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko da, saritutako pertsona eta lanen berri emateko. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2015eko Euskadi literatura sarietako zazpi modalitateetan saritutako lanak eta egileak argitara ematea:

– Gaztelaniazko literatura: Martin Olmos Medina jauna, 2014an Pepitas de calabaza argitaletxeak argitara emandako «Escrito en negro» izeneko literatura lanagatik.

– Euskarazko haur eta gazte literatura: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria andrea, 2014an egileak berak argitara emandako «Argiaren alaba» izeneko literatura lanagatik.

– Euskarazko literatura itzulpena: Juan Garzia Garmendia jauna, 2014an Aztarna argitaletxeak argitara emandako William Shakespeareren «Sonetoak» izeneko lanaren itzulpenagatik.

– Literatura lanaren ilustrazioa: Ana Isabel Gonzalez Lartitegui andrea, 2014an A Buen Paso argitaletxeak argitara emandako «El libro de la suerte» izeneko lanaren ilustrazioengatik.

– Euskarazko saiakera: Joxe Azurmendi Otaegi jauna, 2014an Elkar argitaletxeak argitara emandako «Historia, arraza, nazioa» izeneko lanagatik.

– Gaztelaniazko saiakera: Joseba Zulaika Irureta jauna, 2014an Nerea argitaletxeak argitara emandako «Vieja luna de Bilbao» izeneko lanagatik.

Sarituek, aipatutako 2015eko apirilaren 1eko Aginduaren 2. artikuluaren arabera, 18.000 euro gordin jasoko dituzte. Era berean, 4.000 euro jasoko dituzte, goian esandako aginduan aurreikusitako egitekoak eginez gero (itzulpen modalitatean izan ezik).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 26a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.